

RADOSTNÉ VÁNOCE
A ŠŤASTNÝ NOVÝ ROK

Jaun guztiz agurgarria ta adiskide zaha[rra]

Zure eskerrik beroenak "Herria"

neke ordekari eder-ederra urtero zuganik hartzen dut. Horren bidez Iparraldeko euskal herritik ainitzen berriak irakurtzeko ahal ditut.

Egunberri-jaiak bukatzean ikus ditezen zuretzat desiratzen dizut, hemeka 1975-eko urte gozoentsu bat eta Jainkoaren bedeinka-penez betea ere.

Hori izaz adiskide ona; nire itzal handiko agurrik bizienak.

Zure menpeko: Norbert Tauer

Odesílatel: Norbert Tauer

Envoyé par: Vinohradská 126

130 00 Prague - 3

Tchécoslovaquie

Kolorovaná kresba J. Lad[a]

10 533 K 15
Kčs 0.50

N

Monsieur le Chanoine

Pierre Lafitte

14, Cordeliers

64100 Bayonne (P.A.)

FRANCE

Praga'n/Txekoslobakia,/1946'ko Ekhainaren 17'ean.

Pierre Lafitte abade ta aphezgeitegi txikian eskuararen ikasle jaunari

U s t a r i t z e ' n.

Ene jaun agurgarria ,

Aspalditik atsegin haundirekin eskuara ikasten ari naiz eta horrengatik eskuarazko liburuak bilhatzen ditut.

Nere Baionako luburusaltzailearen bidez zuk argitaratu duzuen gramatika eder-ederra nere eskuetara eldu da. Liburu hotarik jakin dut Eskualdunen loretegia /bi partetan/ eta Jesu-Kristoren bizitzea idatzi ditutzuela. Tamalez, liburu hauk ez dira salgei liburutegietan.

Horra zertako ausartatzen naiz zure othoiztera liburu hauk igorri dietzadazun. Liburu hunen prezioa Paris'eko diru-etxe baten bitartez pagatuko dizut.

Aintzinetik nere esker onak emaiten dautzut

Errezebi-zazu nere komplimendu onenak.

Zure zerbitzari

Norbert Tauer

Norbert Tauer, Prague/Tchécoslovaquie/
Ministere des Communications, Švehlovo nábř. č.12-



ORIG. KOLORIT

RADOSTNÉ A SPOKOJENÉ VÁNOCE

A ŠŤASTNÝ NOVÝ ROK

Gabon zoriontsua baita ere
osasuna ta zorionak urte berrirako
opa dizkizu

zure : Norbert Tauer

Tauer'tar Norberta'k

Praga'tik 1948'gko Lotazillaren 15'ean.



Norbert Tauer, Stalinova 126

PRAHA - Staroměstský orloj Prague-12

Jaun guztiz agurgarria,

Gabon bakketsua eta urthe berri ona desiratzen dauzkut.

Zuri eskerrak "Herria" deithu astekari ederra asteoro errezebitzen dut. Igortzearengatik ene eskerrik hoberenak emaiten dauzkizut

Har izatzu, Jaun guztiz agurgarri horrek, ene agurrik beroenak eta agindu nahi duzun guzia

zure zerbitzari

Norbert Tauer

Pragan 1958'ko Abenduaren 11'an.

F 02453

ORBIS

Kčs 0·30

I. CELOSTÁTNÍ SPARTAKIÁDA

PRAHA 025
1958
11-XII
20-21
5

FRANCE

5 387

016376

Taxe perçue: ______ Kčs 4 Kčs

Monsieur

Pierre Lafitte

8, rue Jacques Laffitte

Bayonne (B.P.)

Praga´tik 1962´gko Azaroaren 24´ean.

Eskutitz au 1.809´garrena da.

Lafitte Piarres kalonje jaunari
Baiona´n.

Jaun guztiz agurgarria ta adiskide ona:

Batean bidaltzen dizut euskerazko artikulu txiki bat "Gure Almanaka" izeneko liburutxoan argitaratzeko. Ez dakit eia garaiez elduko den zure eskuetara.

Zure esker asteoro artzen dut "Herria".

Nere karrikaren izena aldatu dute. Ona emen nere zuzen-bide berria:

Norbert Tauer
Vinohradská 126, PRAGUE-3
Tchécoslovaquie.

Onar itzazu, adiskide on ori, nere itzal aundiko agurrik bizienak eta aginfu nai guzia
zure zerbitzari:

Norbert Tauer

Praga´tik 1963´gko Otsaillaren 8´ean.

<u>Eskutitz au 1.872´garrena da.</u>

Lafitte Piarres Kalonje jaunari
<u>Baiona´n.</u>

Jaun guztiz agurgarria ta adiskide ona:

Batean bialtzen dizut euskerazko liburutxo bat, "Bere idazkiak" izenekoa, Buenos Aires´en agertu dena. Bertan nere euskal-eskutitz batzuek, nere euskaldun adiskideengandik artu ditudan eskutitzen zatiak, eta nere euskal-olerki batzuek aurkitzen dira.

Igazko Azaroaren 24´ean euskerazko artikulu txiki bat bialdu nizun "Almanaka"-n agertzeko. Aurtengo "Almanaka " ez dut artu, orregatik ez dakit, eia nere artikulua agertu den.

Onar itzazu, Jaun guztiz agurgarri ta adiskide on ori. nere itzal aundiko agurrik beroenak eta agindu nai guzia

zure zerbitzari:

Norbert Tauer

Tauer´tar Norberta´ri.



Jesličky se součástmi malovanými temperou na papíře – Ústí nad Orlicí, druhá polovina 19. století (Majetek Národopisného muzea v Praze).

| |
|---|
| 6-334 |
| 9-68 |
| B 6224 |
| F 09*80213 |
| Kčs 0,80 |

Eguberri ona ta urte berri zoriontsu bat desiratzen dautzut.

"Herria" izeneko astekari eder-ederra asteoro errezebitzen eta gozik irakurtzen dut. Eskerrik asko!

Onhar izazu - gure gustiz agurgarria ta adiskide ona, bere agurrik onenak.

Zure zerbitzari

Norbert Vauk

Foto L. Lapáček

NAKLADATELSTVÍ ORBIS PRAHA

Monsieur le Chanoine

Pierre Lafitte

11, rue Jacques - Laffitte

64- Bayonne



Praga'tik, 1965'gko Abenduaren 18'ean.

PRAHA
Pražské Jezulátko, stříbrná soška, která byla do Čech přivezena v době baroka
Пражский Христос — младенец серебряная скульптура привезенная в Чехию из Испании в епоху барокко
Das Prager Jesulein, eine silberne Figur, die nach Böhmen aus Spanien in der Barockzeit gebracht wurde
The Prague Infant Jesus, silver statuette. It was brought to Bohemia from Spain during the Baroque Period
Le Petit-Jésus de Prague, une statuette d'argent apportée de l'Espagne en Bohême dans la période baroque

Jaun guztiz agurgarria ta adiskide ona:

Gabon-jai zoriontsuak ta urte berri zoriontsu bat, Jaungoikoaren bedeinkapenez betea, opa dizkizut.

Zuri esker, asteoro artzen det orko "Herria" izeneko astekari eder-ederra. Eskerrik asko.

Aste batzuek dirala, nere lan bat, euskerari buruz, bialdu dizut.

Ar itzazu adiskide maitea, nere agurrik bizienak.

Zure menpeko: Norbert Tauer

Foto Vl. Šmejkal

NAKLADATELSTVÍ ORBIS — PRAHA

F 32230
077811
3-Ī165 563

Kčs 0,70


radostné
vánoce
a Nový rok

Adiskide ona:

Eguberri bakhotsa [illegible] urte berri zoriontsua [illegible] denzatzu [illegible] zure zerbitzari.

Norbert Tauer

Orko "Herria" arte [illegible] [illegible]!

Odesílatel: Norbert Tauer

Envoyé par: Vinohradská 126, Prague-3

Tchécoslovaquie

Ježíškové figurky, polychromovaná dřevořezba
– Praha 1932
(Majetek Národopisného muzea v Praze)

Foto L. Lapáček

NAKLADATELSTVÍ ORBIS – PRAHA




-7.XII.67-24

81

Monsieur le Chanoine

Pierre Lafitte

11. rue Jacques-Laffitte

64- Bayonne (B.P.

FRANCE



VESELÉ VÁNOCE

PRAHA 025
1966
23 XII
23-24

FRANCE

Adiskide maitea,

Eguberri pakexuak eta urte zoriontsu bat, Jaungoikoaren bedeinkapenez betea, opa dizkizut.

Zuri esker, "Herria" izeneko astekaria asteoro artzen dut eskerrik asko!

Ar itzazu adiskide ona, neri agurrik beroenak.

Zure mempeko: Norbert

odesilatel: Norbert Tauer,
Remitente: Vinohradska 126
Prague-3, Tchécoslovaquie

... Krátký

NAKLADATELSTVÍ ORBIS – PRAHA

Monsieur le Chanoine
Pierre Lafitte
8, rue Jacques-Laffitte

Bayonne (B. P.)



PRAHA
Hradčany s Karlovým mostem ● Пражский
Кремль Градчаны и Карлов мост ●
The Castle of Prague Hradčany and Charles
Bridge ● Prager Burg Hradčany mit Karls-
brücke ● Le Château de Prague Hradčany
avec le pont Charles

PRAHA 025 / 2 XII 1970 21-22 / 15

Nere adiskide maitea :
Zuri ostiraK hartzen dudan "Herria"
i zenbaki ortekari edo-ederra, noizgana
datozen horko berriak. Pozik irakurtzen
ditut zure astekariaren agertzen diren, arte
hain guziak. Ze bertze lanean euskararen
onerako.
Azkeneko denbora hontan osasunez ez
nabil ondo. Ofiziotik gutxitan irtetzen naiz,
eta nere denbora-pasarik atseginena da
euskarazko liburuak irakurtzea.
Ezagutzen bakartasuna ta urte berri zorionta
bat Jaungoikoaren bedeinkapenez betea,
dezaizutekoan dautzut. - Zure berriak zai
geldituko naiz. Agur izazu, adiskide ona,
zure [illegible]

Foto Dalibor Kusák

odesilatel : Norbert Tauer,
[illegible] : Vinohradská 126, Prague-3

NAKLADATELSTVÍ PRAHA

Monsieur
le Chanoine Pierre Lafitte
11, rue Jacques-Laffitte
64- Bayonne (P.A.)
FRANCE


JOS. LADA 36.

~~Ohoretsu nire Jaun aphezbidea -~~

~~RADOSTNÉ VÁNOCE~~

A ŠŤASTNÝ NOVÝ ROK

Jaun guztiz eskergarria ta adiskide ona.

Zure eskerrak "Herria" eta "Gure Herria"-i zeneko agurkari bikainak zenbakitik zenbakira hartzen ditut. Beti arreta bainunbiartekin irakurtzen ditut.

Eguberri bakeztuak eta urte berri on bat, Jainkoaren bedeinkapez betea opa dizkizut.

Hor ipazu, adiskide ona, nire itzal handiko agurrak.

Zure menpeko - Norbert Tauer

Odesilatel: Norbert Tauer
Ouvrný pas Vinohradská 126
130 00 Prague-3-Tchécoslovaquie

Kolorovaná kresba J. Lady
Tisk Severografia Děčín

10-548-O-6
Kčs 0,60




PRAHA 025

Monsieur le Chanoine
Pierre Lafitte
Petit Séminaire
64 - Ustaritz (B.-A.)
FRANCE

PSČ

Okres:


IHS

Nere adiskide maitea:

Eguberri baketsua ta urte berri zoriontsubat desiratzen dautzut

Zuri esker artzen dut "Herria" izeneko asteroko eder-ederra. Pozik irakurtzen dut Eskerrik asko.

Ar ezazu adiskide ona, nere itzal aundiko agurrik bizienak.

Zure zerbitzari: Norbert Tauer

Malovaný tříkrálový betlém z Ústí nad Orlicí
~~Autoři Jan Brožek a Václav Jansa, majitel~~
Josef Kylar
Foto © L. Lapáček

odesílatel: Norbert Tauer
Envoye par Vinohradská 126 Prague-3
Tchécoslovaquie

NAKLADATELSTVÍ ORBIS — PRAHA




Monsieur le Chanoine
Pierre Lafitte
14, rue des Cordeliers
64 Bayonne (B.P.)
France

**feu nouveau**

REVUE MENSUELLE

Rue des Jésuites, 28
B 7500 - TOURNAI (BELGIQUE)
Bureau de dépôt : 7500 Tournai I

Imprimé à tarif réduit

Belgiq
P
7500
5

Tauer

FEU NOUVEAU
Rue des Jésuites 28 Bte 5
B - 7500 TOURNAI
REVUE TRIMESTRIELLE : MARS 95
BUREAU DE DEPOT : 7500 TOURNA No : 6/95
==========================================
201494 MONSIEUR
ANDIAZABAL PIERRE
1
1 RUE DE L ABESQUE
F 64100 BAYONNE

Praga´tik 1954´gko Jorraillaren 7´ean.

Salaberry´Etienne jaunari
UZTARITZE´n.

Nere jaun ta adiskide maitea:

Aspalditik ez dut zure berririk izan. Ala ere uste dut nere Gabon-txartela artu dezula. Bañan zu osasun onez zagoze - lakoan nago. Ni ere ongi dabil.

Aspaldi onetan irakurgai batzuek idatzi ditut. "GERNIKA" izeneko aldizkarian "Aberri-izkuntza - Abendaren oñarria" deitutako nere idazlana arkituko dezu. Beste artikulu batzuek Arana-Goiri´tar Sabin´en omenean aren eriotzaren 50 garren urtebetetzean egin ditut. Artikulu oyek Mexiko´ko Euzko Deyan, Alderdi´n eta beste aldizkarietan argitaratu dituzte. Beste idazlan bat, erderazkoa, "Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos" izeneko deiak dakar. Aren izena auxe da: La literatura vasca contemporánea vista por un vascófilo extranjero.

Nere euskaldun adiskideei esker artu ditut euskerazko liburu batzuek, aspaldi onetan argitaratu-berriak. Jauregi´tar Koldobika jaunak bialdu dit bere lantxo berria "Ipuiak" izena duna. Etxaide´tar Jon´engandik artu dut "Purra-Purra.." eta Mitxelena´tar Salbatore Abak doai eder bat egin dit "Ogei Kanta" bialduz. Doai oiek neretzat abagune bakarra dira euskerazko textuak lortzeko. Ezin dezaket euskerazko liburubrik erosi, emendik atzerrira dirua bialtzea debekaturik dagolako.

Paris´ko EUZKO DEYA´n irakurtzen dudanez, aurtengo udan Eusko-Ikaskuntza´ren VIII garren Batzar osokorra egingo dela Ustaritze´n. Zoritxarrez, ez dut parte artuko, emendik atzerrira joatea debekaturik dagolako. Ala ere, idazki bat bialduko dut Batzarrean irakurtzeko, azkenengo Batzarrean / 1948 garren urtekoan/ egin dudan bezela.

Besterik gabe, nere idazkia bukatzera noa eta zure berrien zai gelditzen naiz.

Ar itzazu, nere jaun ta adiskide maitea, agurrik onenak eta agindu nai dezun guzia

zure zerbitzari

Norbert Tauer

Tauer´tar Norberta n.

Praga´tik 1960´gko Garagarrillaren 23´ean.

"Kostatarra" jaunari - Larzabal.

Baiona´n.

Nere jaun guztiz agurgarria:

Zure izena ez dut ezagutzen, bainan "Kostatarra" izenordearekin "Herria"-n izkiriatzen dituzun artikuluak, batez ere "Eskuara gure eskoletan" izenekoa, atseginez beterik irakurri ditut. Euskaldun zintzoa ta euskaltzale sutsua zerala oartzen naiz ta euskatzale gartsua naizelarik ere, nere lenengo euskerazko eskutitz au zuzentzen dizut zurekin artu-emanetan eskutitzen bidez sartu naiean.

Ez dakit eia euskeraren aldezko nere lana ezagutzen dezun. Nik ere biotzaren erditik Euskalerria ta euskera maite ditut. Euskeraz izkiriatzen ikasi ondoren, asi naiz euskerazko artikuluak egiten. Nere euskerazko lanak :"Zeruko Argia"-n, "Euzko-Gogoa"-n, "Euzko - Deya"-n, "Aránzazu"-n eta beste euskal-aldizkarietan arkitzen dira. Euskaldunen biotzetan euskerarenganako maitasuna piztutzea, auxe da nere artikuluen xedea. Azkeneko denboran asi naiz euskerazko olerkiak ondutzen.

Euskaldun askorekin artu-emanetan nago. Iparraldeko Euskalerrian ere adiskide batzuek ditut eta neretzat poz aundi-aundia izango da zure erantzupena eukitzea. Labaguerie Michel jaunari eskutitz bat eta txartel bi bialdu dizkiot, zoritxarrez ez dut bere reantzupenik izan.

Zure berrien zai gelditzen naiz. Ar itzazu, jaun guzitz agurgarria, nere itzal aundiko goraintziak.

Zure zerbitzari:

Norbert Tauer

Tauer´tar Norberta.

Nere zuzenbidea:
Norbert Tauer
Poste Centrale, Post-Box 728
Prague-1, Tchécoslovaquie.